DEUNEN BIXITZA

PAKOMI DEUNA

Lekaipuru ospatsu au 298'gaŕen urtean jayo zan. Gurasoak ez ebazan kistaŕak, zan antxiñako jainkoaizunen gurtzaleak baño. Aldi aretan oi ziran jakintzak bere gaztezaroan ikasi ebazan Pakomi'k; baña gurasoakandik etorkiozan siñeskeri ta gutur-uskurtza ez ebazan beingoan itxi. Ona emen zelan eta zegaitik egin zan kistaŕ. Konstandin Andiak gudua darabil eta Pakomi be gudalburu egiten dau. Buruzai gaztea, bere menpeko gudariekin osoro kistaŕa zan uri batera eltzen da: uritaŕak aŕera on-ona egiten dautse eta Pakomi aen bizikera bikañaz aŕituta gelditzen da. Izan be, lenengo kistaŕen antzera uri aretako biztanleak be, guztiak biotz eta gogo bat eukela zirudian: alkargazko maitasunik zindo ta zintzoenean bizi ziran. Pakomi'k ez eban egundo alako bizikera atsegiñik kusi. Bere begiz ekusan ori ezin siñesturik, itandu eutsen: Aŕituta naukan zuen arteko amaitasun andi ori ¿nondik datorkizue? Eta biztanleak erantzun eutsoen: Gu kistaŕak gara: Kisto gure Jangoikuak orixe, alkargazko maitasun ori berariz agindu dausku-ta, origaitik gustiok alkaŕ maite dogu. Ori entzunaz, Kistaŕen legea ezagutzeko gurari bizia sortu zan Pakomi'ren biotzean. Lege ori nok irakatsi eŕez aurkitu eban Pakomi'k, eta gudua amaitu zanean ugutza artu ta kistaŕ egin zan, ez edozelako, zindo ta zintzoenetarikoa baño. Luŕeko aukera ta andikeriei bein-betiko aguŕ egin eta Jaunarentzat biziteko, lekarora, basamortura joan zan. Palemon deuna zuzentzale ebala, ezautu ebazan Pakomi'k Jaunaren bide ezkutuak, eta ikasle izateko lekarora etoŕi zana, irakasle egin zan lasteŕ. Iru urte baŕu, Tabena eritxan lekautetxea irasi eban Pakomi'k Nilo-ibai-ertzean. Palemon deuna il zanean, onen anai Jon etoŕi yakon lagun. Otoitzari edo lanari ekiten eutsoen lagun biok: otoitzean ez egozanean, iruten edo zakugiñen ziarduen, salueuŕiaz landeŕai laguntzeko. Soñeko zarpala ta zurdatz latza erabiltzan Pakomi'k: jana uŕi ta lo gitxi. Amabost uŕtean bein be etzan oyan etzun: aŕigañean jesaŕita, loaldi labuŕa, ta belauniko, besoak zabalik, otoitzaldi luzea. Jangoikoaren otsein zintzo onek, olako bizitza latza egiñaz, entzute andia aŕtu eban: ori zala-ta ainbat gizaseme etoŕi yakozan lekaretxera, bere menpean bizi ta zeruko bideari jaŕaitzeko asmuz. Onoimenez gero ta orniduagoak izan eitezan, araudi egokia ezaŕi eutsen bere ikaslai. Lekaide bakotxak—ziñoan—bere indaŕen neuŕiz barau ta lan egin beaŕ dau: jantoki baten gustientzat janaria bardiña izango da ta eten-bako ixiltasuna. Lekaideak egunean sei bidaŕ gitxiñez otoitz-egin bearko dau: goizean bitan, aŕatsaldean bitan eta gabean beste bitan: kalamuzko jantzi zakaŕa, gaŕian ugela ta soñean zurdatza erabiliko ditu.

Araudi ori Tabena'ko lekaide gustiak bete eroyen: Pakomi'k, enparauei ikasbide ona emonaz, beste iñok baño zeatzago. Donebidearen lenengo irasle, lekaroko bizitzaren irakasle, Pakomi izan zan, onoimenez gizaseme ornidua, biotzeko adore ta gaŕez zeruko aingeruen autzekoa. Burni-biziak lez erakartzan biotzak beragana. Pakomi'ren omen eta ospea andiago ta ikasle geyago etorkiozan. Guztientzat tokirik ez, eta gela baŕi asko egin beaŕ izan ebazan ainbeste lagun artzeko. Lekaretxearen irasle ta buru izan aŕen, lekaide gustien otsein eta moŕoi egiten zan Pakomi: jantoki nai sukaldeko zeregiñak egiteko beti egoan gertu: eŕatza eskuan aŕtu ta gelak garbtzeko, bardin: onelan, lekaipuru zana lekaide gustietan apalena.

Gogoz lan egin eban Pakomi deunak jainko-aizunen gurtzale eŕukaŕiak siñeste-argira ta kistaŕ legera ekarteko. Lanok etziran alpeŕekoak izan. Guzuŕ-siñeskeriak itxi-ta inguruetako ainbat biztanle etoŕi ziran egiazkosiñestera: Lekaipuruak bere eskuz ugutzau ebazanak be, etziran izan gitxi. Lekaroan bizi nai eben emakumak be ba zirala-ta, oneintzat berarizko lekaŕetxea iragi eban Pakomi'ren aŕeba batek, nebearen aginduz. Lekaretxe au Nilo-ibayaren beste aldean egoan, eta Pakomi'k emondako Araudipean bizitza deuna egin eban au emakume askok. Gustiz eta osoro Jangoikoaren gizona zalako, Jaunak alatz edo mirariak egiteko almena be emon eutsan bere otsein zindo oni.

Ainbeste gauza on egiten ebazan gizonari Satan'ek ezin bakean itxi. Guzuŕ andiak asmau ta zabaldu ebezan aŕiotaŕ siñausleak Lekaipuru onen aurka: ori zala-ta Gotzañak batzaŕera dei-egin eutsoen Pakomi'ri. Apal be apal agertu zan Lekaipuru deuna; eŕez zuritu eban bere burua, siñauleak iñartziz eta guzuŕez salatu ebela erakutsiaz. Pakomi deun andia, gizon ornidu ta osoa zala igaŕi ta autortu eban Gotzañen batzaŕak.

Ainbeste lan, neke, barau ta ilduraz aulduta, gexotu zan Pakomi deuna. Irurogei uŕte ebazan eta ogei ta amabost eroyazan Tabena'ko lekaretxean. Il baño egun bi lenago lekaidiak batzen ditu, bizitza deun apal garbi ta gartsua egiteko aolkurik edeŕenak emoten dautsez eta aŕiotaŕakin aŕtu-emonik txikienik be ez eukiteko diñotse. Biotz apalez eta gogo beroz eleizakoak aŕtu, Jangoikoari eskeŕak emon eta gizon zuzenaren eriotza bare-gozoz il zan Pakomi Jaunaren besoetan 348'gaŕen uŕtean. Bere gorpua lekaideak andiro eortzi eben. Munduzaleak Deunen bizitzea zorakeritzat deuke ta eriotzea gerentzat; baña Deunak eriotzan Jaungoikuaren seme egiten dirala ikusirik, zoroak eurak izan dirala autoŕtu beaŕ.

E. TAŔ J.

¡BASURDIAK!

Txaŕikumak dirala uste dozuzan oneik, txaŕikunak eztira, basurdekumiak baño. Lezama'ko Izagiŕe euzkotaŕ zintzuaren etxian ikusi zeinkez bederatzi basurdekume oŕeik. Amezketa-aldetik ekaŕi eben arkala ta Bilbao'ko abere-ildokijan zanian erosi eben. ¿Olakorik ezin ixan daŕekela? ¡Bai bein! Saŕi jazo dan gauzea dala-ta. Atea ei-dago txaŕitoki-onduan eta olo bat jausi zaneko iruntsi eben basurdakuma oneik. Ankeŕak diranentz iŕaundu dautsogu Izagiŕe'ri, baña otzan-otzanak dirala erantzun dausku.

Datoŕen igandian Mungia'ra eruateko asmua dauka. Ixidor deunaren eguna ospatuteko jai andijak egingo diran ezkero, abere-sariketa batzuk jaŕi dabez eta ia zerbait irebasten daun-do, arkala ori bere umiakaz eruango dabe. Basurdekume oneik ikustekuak dira gero. ¡Amaikatxu baŕe ta algara ixango da igandian, Mungia'ko zelayan agertuko diranian!

ERRIJETATIK

AZKOITIA

¡GORA JEL!.—Poz eta atsegiñez beterik deadarka natoŕkizu, irakuŕle maitea, adierazi nairik Azkoitia'n abeŕtzalien aŕtean arkitzen dan alaitasun aundia jaŕailan 23'an auteskunde gogoŕ oŕetan izan degun gurenda edeŕagatik.

Euzkadi'ren etsayak sekula baño alkaŕtuago integro-karlista-alponsino ta... eginda auŕka egin digute diruz (mayordomo) eta abaŕ eta abaŕ, azkenez eŕuki etxeko lekaimeak ere beaŕtuaz autaŕkia ematera, Jakin irakuŕle, onek beren zuzendariak nai zulako juan biaŕ batzuk nozki, baña alaz gustiaz ere guk uste gendun malara iritxi gera, ziñegoitziak izateko atera ditugularik zortzi abeŕtzale jatoŕ Garate'taŕ Domeka, Karetze'taŕ Jon, Alberdi'taŕ Bonipagi, Garate'taŕ Joseba, Laŕañaga'taŕ Eŕamun, Lañaga'taŕ Toma, Zubizaŕeta'taŕ Eukeni, Aŕizabalaga'taŕ Joseba, azkenengo laurak baseŕiŕaŕ zintzoak. Eta noŕk ziñistu biaŕ zuan jauntxo zitalen auŕka abeŕtzaliak 1.649 autaŕki euki biaŕ geñituela, piperpotiak beren mendeko langile azkori autaŕkia indaŕez kendu, ainbeste lan egin, Dukiak eta direnekin alkaŕtuta berak 1.620 autaŕki guk baño gutxiago? Guk eta beste iñok ere ezin.

Eta orain ziñisgoitzien gurendak aŕgi erakusten du, uŕengo auteskundietan dala piperpotien azkena. Abeŕtzaliak ¡gora Jel! gora Euzkadi azkatuta eta ospatu daigun gure garaiŕza.

Zorionak eta eskeŕak abeŕtzale zintzo emakume eta gizonezko preztuei eta aparteko eran baseŕiŕaŕ maite leyatari. Azkoitia eta Euzkadi gustia aŕituta utzi degulako egin dan lanakin.

EUZKO-LANGILE ELKAŔTEAK.—Ikuŕiñaren onespena degu oŕilaren 21'an oŕetarako antolatu dituan Jai-aldiak, goizian 9terdietan bazkun aretotik ikuŕiñakin irtera, Uŕetxua'ko alkaŕtasuneko anai txistulariakin beŕtan biltzen dirala bazkide gustiak lagun dituala Juango dira txadon nagusira.

10'tan Jaupa nagusia abestua txonitza egingo digu uritaŕ Jaupari azkaŕ Getari'ko txanbu Jaun Laŕea'taŕ Nikasi'k, Jaupa ondoren iru ikuŕiñaren onespena, ondoren pelota partidua "Goiko Zelaya" pelota-lekuan alde batetik Zarautz'ko Euzko-Langile bi uriko biren auŕka, ordu batian oturuntza Elortza'ren jatetzian, aŕatsaldian 4terdietan azoka enparantzan itzaldi bikaña, langile arazoan diran gizonik azkaŕeneakoakin, Benegaz'taŕ Joseba Mirena gaste lege gizona, eta Ariztimuño'taŕ Joseba ta Onaindia'taŕ Alberta jaupari aguŕgaŕi ospetsu diran izlariakin; Azkoitia'ko Euzko-Langileak didaŕ dizutegu Euzkadi'ko anai langile guztieri, egun oŕetan zai gerala zuek bezarkatzeko eta etoŕi gabe alduena ez dedila geratu.

UARA.—Euzko-Langile eŕbesteko eta eta eŕiko gustieri adierazten zayete oturuntzara nai dutenak gustiak garaiz eman dezatela aditzera ilaren 18'ko, bere zaneuŕia izango-da 6 lauŕleko.

EGI-ALDE.

Uaŕa.—Poztu naz zuben gurenda jakin dodanian. Ori ixan da lan edeŕa! Zorijonak bijotzea ta jaŕai auŕera.—L.

FORUA

OŔILA'KO LORAK. — Urtero legez, euzkel-abesti edeŕ eta elizkixun alaitsubakaz, ospatzen doguz ile onetako lorak. Iluntsero notintza aundija txadonaratuten da. Igazi zan igandian, Amunategi'taŕ Eulali prantzesketaŕ aguŕgarijak, beti legez, txonitz mamintsu-mamintsu bat egin euskua. "Abilidie" ezixenagaz ezagutzen da txonizlari ospetsu au, Euzkadi'ko baztaŕ gustijetan. Ezixen au, eztakit nok ipiñi eutsan, baña, ondo irabaziŕa dekola uste dot. Abile da bai, beintzat, goguak Jaungoikua-ganatuten, euzkotaŕ lekaide zintzo au. Zorijonak, eta auŕerantza be, olantxe jaŕaŕu.

NASKALDIJA. — Huelva'tik etoŕiŕa emen aguŕtu dogu, Ondaŕo'taŕ Matai ontzi-gixona. Baŕa Palencia'tik etoŕiŕa oso etseegiñez estutu dogu, Laŕinaga'taŕ Luken'en eskuba be.

—Bilbao'ra juan da Uŕutia'taŕ Miren. Aguŕ eta ondo ibili.

GERGORI DEUNA.—Ila onen 9'gn ospatu gendun "Triñe" deritxon basetxaunoan bertako jai nagosi dan Gergori Deun eguna. Goixian txonitz da gustiko jaupea ixan zan. Txonitz-larija bertoko Txaunburuba dan Zabala'taŕ Eŕapel. Edeŕto azaldu euskun Gergori deunaren bixitza ta bere mirarijak.

Aŕatsaldian euzko-dantzak eŕia; oŕura dan legez, dantzaketa onetan etzan ozte aundirik ixan, baña juan gintzanok beintzat naikua jolastu gintzan.

LUGIÑAK. — Egin daben euri apuŕa baŕiatzen, gogoŕ dagitse gure lugiñok eguna soŕtzen dabenetik eta ilundu aŕte, komunistak etoŕiko diran bilduŕ asko barik ereitza-arazoetan; bai ba, aŕtu gura bada, erein-egin biaŕ da-ta. Andana oneko urtia eukiŕa opa dautsubet.

ASTELAŔA'TAŔ ANDONI'RI.— Zorijonak Kortezubi'ko abeŕtzalioi, eta batez bere, zuri, Astelaŕa euzko-langile jatoŕ oŕeri. Irauko aspalditxuben ibili dira kortezubitaŕak, zu, ta zure alderdija oinpetu nairik, baña, orainguan danak oinpetu eta danen ganetik jaŕi dozu zeure alderdija, ta auŕerantz be, olan jaŕaŕuko dozula uste dot. Entzun dodanez, beintzat, etoŕkixunatzaz be, begiratuten dozu, "Gastetxu" aldra edeŕen bat be ikuŕin eta ondorengo gustijakin orniduta ei-dekozu-ta. Jaŕai, ba, Andoni, bide oŕetatik.

IBAI-GANE.

ZEANURI

EUZKEL-IXENA. — Elexondo'ko Izagiŕe'taŕ Pantzeska eta bere emaztiak semetxu bat euki dabe. Ugutzakeran, euzkeldun gustijak egin biaŕ dogun legez. Andoni euzkel-ixen poliŕa ipiñi dautse. Zorijonak guraso eta aŕa-amabitxijai; eta Andoni jayopaŕitxubari osasuna eta euzko-azkatasuna opa dautzubet.

ERIJOTZAK. — Egun gitxi baŕuban, Ugarka'ko Astondoa'taŕ Eŕamun eta Artzuaga'ko Ozerinjauregi'taŕ Dunixi il dira (Goyan bego). Atsekabean laguntzen dautsegube sendikuai, eta batez-bere Ugarka'ko Estepan'eri, eta orain otoi bat euren gogo-aldez.

IXIDOR-DEUNA. — Lugiñen zaindarijaren eguna ospatuteko jai poliŕak gertau dabez eŕi ontan. Goxerik, beti legez, txistularijak; amaŕetan jaupa Unduŕaga'ko Zamaloa'taŕ Keperin jaupari jaunaren itzaldijagaz; Aŕatsaldean, pelota-jokaldi edeŕ bat daukagu: Etxebaŕi'ko Batzokijaren ixenean dabiltzazan Eloŕiaga eta Iŕuŕiaga mutil gaste eta jokolari ospetzubak, Areatza'ko Altuna eta Beŕiozabal gustia ezagunaren auŕka.

Etxebaŕi'kuak, euren joko edeŕagaz jokaldi asko aurten irabasikoak dira, eta orain Batzokietako txapelketan buru dabiltzazanak.

Areatzakuak baŕiz, egun gitxi dala Portugalete'ko jokolarijari eŕez-eŕez irabazijak.

Jokolari bitzubak irabazi eta irabazi badabiltzaz, bijaŕ ¿nortzuk irabazko dabe?

Eztakigu, eta etortzen bazara Uŕaburu'n zeyara ikusiko dozu. ¿Pixubak be geyen nok altzauko dauz?

—Uŕengo igandian be zerbait ixango dogu; pelota jokaldijak eŕikoen aŕtian, ariñeketak, eta jolasak... eta gero... uŕengo jayari itxaron.

NASKALDIJA. — Oraingoan Zuluaga'taŕ Margariŕe uŕunduten yaku. Berak E. A. B.'ko lanak (beste batzuben laguntasunagaz) egiŕen ixan badiŕuz be, dana Pujana'taŕ Miren, Zuluaga'taŕ Miren Gotzone eta Arana'taŕ Martiñeren eskubetan itxi, eta Galdamez'ko ikastola batera uŕunduten yaku. Eŕi ontako sosolistubak Ontabila jauna (G. B.) uŕundu ba eben, Laiseka eta lagunak bere ordezko edeŕa aginduten dabe. Ikastolara doyana legez, euretatik abeŕtzale azkok urtengo dabenen ustea daukagu.

Aguŕ, eta ondo ibili.

AŔEGI'TAŔ BAT.

UBIDEA

EGURALDIJA.—Eguraldi onak dirala-ta oso aro edeŕean egin dira aurtengo ereitzak. Pagatxa-ondoren batzuk ixan-ezik, enparauok ereinda dagoz, eta uŕengo egunen baten oi dan eran egingo da Urkiola'ko Aŕentza be. Orain ezta besterik biaŕ euri zapaŕada on batzuk botatia baño, bedaŕak urten dayen uŕitxu dago ta, bestela abelgoŕi ta umeŕijak gosia igaro-biarko dabe.

"SABEL-ANDI" ASARE.—España'ko lendakarijak Bilbao'ra egin daben ikeŕtaldija dala-ta abeŕtzaliak agertu daben bekoki motzagaŕik edo gustiz asaŕatuta ei-dago "Sabel-Andi" ta esan ei-dau: "Se han de acordar los nacionalistas de mí". Bai, ondo dago; baña bada-ezpada be ez etoŕi onantza.

GOBERNUA'RI BILDURA.—Euzko-Langilak egin daben opoŕketiagaz, Gobernua be ikaratu da, ba, euretariko batek esaŕ eyeban: "Estos tios el primer dia nos dan un disgusto serio". Eta aldi-bateko "Liga Monarquica'ko" jaun-andi-batek esan eyeban Madrid'en. "Se ha demostrado que en Bizkaya existe una organización obrera capaz de aplastar la socialista". ¡Tirok ba!... ¿Noz edo noz?... Baña... ondiño be onekin ezpijau, baŕabasak dira onek pipeŕ-potiok eta.

BOLA-TXAPELKETIA. — Igazi dau igandian ixan da Bilbao'ko Eŕekalde-beŕi-txaidian bolatxapelketia eta ogetalau dra batu ziran. Orain aŕte eztauka gaŕantzi-andirik izpaŕ-onek, baña itxaron apuŕ bat. Aldra-bakotxa lau gixonekin egiten dana ba-dakixu, irakuŕlia, eta alan gixon gitxikin aldra asko egin-leikezala. Tiraba; Etoŕi ziran Barakaldo, Sestao, Portugalete, Kaŕantza ta, zetan esan be eztago, Bilbao'tik be batu zirala.

Bilbao-kuok nortzuk ixan ziran? Egun osuan gogoratuten ibili-ta be etzeunkijo igaŕiko. Alan ba geyago nekatu barik esaten nuatzu.

¡Jauzkakuak! ¿Jauzkakuak? Zer diñozu? ¡Bai gixona! jauzkakuak lau aldratan aurkestu ziran.

¿Eta zeregin eban ba? ¡Galdu, gixona, galdu! Jakiña ba; ¿zer egingo eben ba? Bola-txapelketa zan lez, zigor-txapelketa ixan ba-zan, eurok txapeldun ixango zirala zetan esan bez; baña bola-txapelketia kaŕantzataŕak irabazi eben eta jauzkakuok txakuŕ-makilatua buztana aukartian saŕtuta apal-apalik etxera juaten dan lez, alan juan ziran txaide-ziar "koitau-pestiok".

GEXUAK.—Agiŕe'taŕ Eusebi gure adizkide ta abeŕkide zintzua naiko osatuta juan zan Bilbao'ra.

ARETXETA.

MAÑARIA

ELIZKIXUNAK.—Ilaren lenengo barikuban Josu'ren Bijotz gozuaren opaz Jaunaŕtziak eta otoitzak egin ziran. ¡Aintza Bijotz deun-deunari!

Eta, igandian, gure Gotzain aguŕgaŕijaŕen agindubari jaramonda, emeko elexan be Joseba deuna'ren saspi igandiak asi ziran.

ESPETXETUBEN ALDEZ.—Emeko abeŕtzaliok be, espetxietan auŕkitzen diran abeŕtzale zintzoentzat, aldoguntxua emon dogu. Geure anayari al-dogun eran laguntzeko biaŕkuna dogula, eztogu aztu biaŕ.

GEXORIK.—Elexakuak aŕtuta auŕkitzen da "Labaŕondo-Eŕota,,'ko Belakortu'taŕ Jon gixona. Jon gixajuari, osasuna, bijotzez opa dautzogu ba.

JUAN-ETOŔIJAK.—Aste ontan Bermeo'tik ixan da Ibaŕa'taŕ Eŕupin gure txaunburu agurgaŕija.

—Igandian egon ziran emen Amesti'taŕ Anastasi abeŕtzale zintzua ta Izagiŕe'taŕ Jon Andoni.

—Baŕa, igandian aguŕtu gebazan emen, Areŕiurtena'taŕ Susane ta Irastortza'taŕ Miren Begoñe ta Eŕamone neskatil abeŕtzaliak.

—Zaldibar'tik etoŕi zan Untzalu'taŕ Miren anderea, Areŕio'ren alarguna.

—Areatza (Villaro)'tik etoŕi zan, bere senide bat ikertuten, Sierra'taŕ Biŕoŕ.

ERIJOTZA.—Lengo astian il zan, Durango'n, Gorostitza'taŕ Sabiñe anderañoa. Emeko "Labea" etxian uŕte askoan bixi ixanikoa. Jaunak zeruan euki begi.

LUGIÑAK.—Artuak eta ereŕen alper usain barik zintzo diardue. Aroaz batera ibili biaŕ dala ta.

ZIXAK.—Ondiño geuk eztoguz jan, baña, batian bestian azpilkada galantak ikusi bai. Olako gauza piñak, edozeŕen aborako eztira ixan be egiŕen eta. Bizkoŕentzat eta "polsa" senduak dabezanentzako baño.

ARGIN-MUTILAK.—Igaroriko astian juan ziran Balmaseda'ra, an, argin-lan edeŕetan ekiŕeko asmuaz, Gotiŕaŕ Markelin, Barazaŕ'taŕ Kandida, Bernaola'taŕ Eŕapel eta Zugatzagoŕia'taŕ Bingen emeko mutil abeŕtzaliak. Osasun-bakiaz ibili mutilak; eta dirua sendo ekaŕi eŕira.

Baŕa, aŕaturiko mutilok gastigauta (abixauta) igandian juan ziran Balmaseda'ra, ango mendigoxalŕen jayan dultzañia jaten ekiŕeko, Bilbao'taŕ Domeka ta Ortuoste'taŕ Pirmin Mugaŕa-aldeko mutil patxarazkuak.

"ETE,,'RI.—Aizta maŕe ori, igandian be, zure idazkija, beti lez, aŕetaz irakuŕi neban. Eta, bertan esaten zeban lez, emen be antzerakuak jazo dira. ¡Oi "Ete", alkaŕen onduan berba egiŕeko eran aurkitzen garanian, a zelakuak edestuko doguzan! Ikusi ta zinistekuak. Alakoxe gauzak jazo dira-ta.

Eta... kukuba, lora-txoŕta edeŕ bat besuan zendubala entzun zendun ¿ezta? Poztu zaŕez ba. Jazokun oŕek (laŕosak amairutik gora baziran beintzat) bere ikuŕ polit-poliŕa dabelako. Au baña, izpaŕingiz enoyatzu esaten, batzuk jakiŕia ezta komeni ta... Zeugaz berba egiŕen dodanian esango dautzut.

A, ta uŕenguan "Ete", "jakiŕuna" ta olako berba andijak, argi-zabalian eztaustazuz esango; neuri belaŕira ixilian baño. Olan, neuk bakaŕik baŕe egingo dot... Aguŕ adizkide ona.

MAÑARIKO.

GETXO

LENENGO JAUNAŔTZIA. — Igazi dan astelian, Deun Nikolaren eŕtxadonan, goxeko zortziretan Euzko-Ikastola'ko amabi neskato-mutikotxuk jaunaŕtu eben. Oindija dana zan loraz beterik eta mako bi agiri ziran euzkel-oŕatzaz.

Lanok geure eŕiko lorazain ona dan Gerediaga'taŕ Eŕamun'ek egin ebazan ta ganera ezer ordaindu-barik, abeŕtzale zintzuari yagokon eran beti dagolako prest lan onak egiŕeko.

Bilbao'tik etoŕi ziran irurogetamar mutiko-neska, Ondaŕeta'tik beŕogetamar, eta emekuak be beŕogetamar ziran. Ikeragaŕizko Jaupea abestu eben gustijok eta benetan pozik egon gintzan euren euzko-abestijak entzuten. Aretxedeŕa'taŕ Joseba txaunburubak jaupea egin eban.

Bederatzijeŕan gustijak etoŕi ziran euren irakasliakaz geure Euzko-Etxia'ra eta antxe goxaldu ziran ondo baño obeto. Olaizola'taŕ Bingene'k badaki gauzak ondo egiŕen. Zorijonak jaunaŕtu eben umetxubai ta euren guraso zintzuai. Eztago beste biderik geure abeŕija azkatuteko.

IXIDOR DEUNA. — Ixidor egunean ixango dira eŕiko Miren deunaren zelaya sariketa andijak, bei, txekoŕ ta txalikoñetzako. Geure udalak, bizkai-auŕezkikutxak eta eŕkalak emoniko sarijak dira.

Beraz, albo-eŕijetako lugiñak ba-dakixube abere onak ba-dozubez ila onen 15'gn. ona etoŕi biaŕ zariela. Emen ei-dago bei ikuskaŕiren bat, baña ugazabari etxako atsegin olako lekubetara juatia. Buruba berotu dautse lenengo sarija loŕtuko daula ta etoŕiko ei-da.

AŔPIDIA.—Espetxian dagozan abeŕtzaliai lagunduteko asmoz aŕpidia zabaldu zan eta aldogunaz lagundu biaŕ dautsegu geure anayai. Beriala batu ziran beŕeun (200) lauŕleko.

EUZKO-SALGAITOKIJA.—Igazi zan larunbatean batzaŕa euki leuguban eta euzko-salgaitokija jartia erabaki zan geure euzko-langilientzat. Irurogei aŕpidetu ziran baña geyago biaŕ diran ezkero, gustijoi dei-egiŕen yatzube.

EUZKEL-IKASLE BAT.

DURANGO

BATZAŔAK.—Igandez, il onen 14'gn., goxeko amaŕetan egingo da Astarloa-Etxian, Euzko-langilen batzaŕ orokoŕa. Al dozuben euzko-langile gustijok bertoratu zateze.

Baŕa egun oŕetan, aŕatsaldeko bostetan batzokiko arctuan eukiko dabe emakume abeŕtzaliak batzaŕ gaŕantzitsu bat. Batzaŕ au Uri-Buru-Batzaŕak deŕuta da eta aŕen eskatuten yake danori utzik egin barik juan daŕezala.

AŔPIDIA. — Batzokijan dago edegiŕa abeŕtzale espetxeratuben aldezko aŕpidia. Askaŕ ibili ba abeŕtzale gustijok al-dozubena emoteko.

ITZALDIJA.—Il-onen 20'gn., larunbata, Euzko-angiliak eraldutako itzaldi edeŕ bat entzuteko zorija eukiko dogu. Eletarija Onaindia'taŕ Alberta jaupari entzutetsuba ixango da ta gixaŕteko gayatzaz itz-egingo dausku. Gaŕ andija dago berari entzuteko ta ezpai-barik egun oŕetan Astaŕloa-Etxia beterik aurkiŕuko da.

GEXORIK.—Onela aurkitzen da gure lagun Astigaŕaga'taŕ Markel. Askaŕ sendatu.

NASKALDIJA.—Laŕinaga'ko espetxetik uŕtenda, gure aŕtian auŕkitzen da Madaŕiaga'taŕ Purdentzi, Bilbao'ko abeŕtzale gogoŕa.

Aldi luze baterako itxasoratu da gure lagun Uriona'taŕ Karmel.

Madrid'era juan dira Lejaŕeta'taŕ Koldobika gure batzokiko antzeslari trebia, Mentxaka'taŕ Polendin, Santisteban'taŕ Iñaki ta onen emaztia. Ondo-ondo ibili.

IBAIZABAL.

Tolosa'ko Euzko-Gastediaren lenengo irtera Belauntza'ra

Ekin dio Tolosa'ko Euzko-gastediak bere asmoak mamitzeari. Tolosa ingurutako uriska guzitara iritxi beaŕ luke Abeŕi-zantzoa aurtengo udabeŕ eta udara aroan. Eta iritxiko da. Asiera izan oi-da zalena. Eta joan dan igandez asi ziran. ¿Nola asi gero? Postutze al zerate, mutilak! Belauntza'ko jai-aldia izugaŕia izan zan. Sekulan Belauntza'n ezagutu ez dan bezin apain atsegiña.

Euri-langar anka-meak kaletaŕak izutuko ote zitun bilduŕ ziran belauntzaŕak. Baño bai zera. Tolosaŕak antxe, bildu ziran, izlari, txistulari, antzeslari, dantzari eta guzi.

Zirimiri gokaŕiak zututa etxean gelditu ziranak eŕuz ziran bai. Alaz guztiz jendetza edeŕa bildu zan. Euri-langaŕa ez izatera, nork uztaitu Belauntza'ko plazan an bilduko ziran abeŕtzaleak?

Jai-adiari mitiñak asiera eman zion. Izlari beŕi bat agertu zitzaigun. "Arantxa" euzkel-Idazlea. Idazle txukun apaña dala ongi genekien. Zuk ere bai noski, irakuŕle. Izlaritzan areago dezu. Abeŕtzaletasun oñaŕi eta agerpen nagusien azalpen sutsu eŕex eta zakona, leyo zar goitutik zuzendu ziguna. Ain bulartsu ekin diozun lanari, jaŕai etengabe.

Ondoren, berak oi bezela, T. E. G.'ko lendakari dan Leunda izlari sutsu jantziak. Eskertu zitun Belauntza'ko agintari, gaztedi ta entzuleak. Laisteŕ espetxeratuko dizkiguten abeŕkide tolosaŕak, eŕuz txalotu zitun an bildurik zan jendetzak, izlariaren zorion-opatzeari erantzunaz. Gero, auŕeko izlariak jeikiteko oñaŕi gañean, abeŕtzaletasun ikasbidearen soña, baseŕitaŕen adimenai aurkestu zien.

Euzko-abendarena abestuaz amaitu zan mitiña.

Enparantzan jasoa zegon antzokia. Benetan ari naiz gero! Bere solairu, orma ta auŕeko oyalarekikoa gañera. Tolosaŕen eskutatik sortuba. Belauntza'n bataitu gendun. Aurtengo udaran, amaika basteŕ poztuko ditu bere oyal atzetik irtendako lanak.

Bataitzeko zorla izan zutenak, beŕobiaŕak. "Moŕoi jatoŕa" antzeŕki-gayaren lenengo imintzioa sortu orduko, ango ja-ja, kar-kar, lertu beaŕa. Eten gabe bere artantxe jaŕaitu ziran entzuleak. A zer nolako gozatu aldia!

Ezpatadantzari talde beŕi bat aurkestu zun T. E. G.'k. Lenengo dantzarirako ondo baño obeto jardun ziran. Auŕera, mutiŕoak!

Gero, dantza ta dantza, eguzki-argia zearo maxkaldu zan bitaŕtean eta kanpaitoŕeko eskilak Aguŕ Maria jalki zun arterraño.

Negu-aldian Abeŕi-etxeko sukaldea jakintza-suaz berotuaz jayo jardun zarie anayak. Esaera zaŕaren mamia ondo bai dakizute: "au gabeko sukaldea, odol gabeko gorputza". Odol goŕiz marduldu dituzute zuen elkartearen zañak.

Orain eguraztera. Gure eŕitxoak abeŕtzaletasunez berotzera. Arerio zakuŕak zaunka ta zaunka ari diran bitaŕtean, ¡or konpon! beroyei otsegiñaz.

UZTUŔE.

Léase EUZKADI

Igandetako jaupa-atalak

Berbizkunde-osteko IV igandia

SAŔKUNA. (97'g. Er.). Abesti baŕija abestu Jaunari, aleluya; Jaunak ixukarijak egin dauz-ta, aleluya; bere zuzentasuna atzeŕiŕaren begiŕan ageŕtu dau, aleluya, aleluya, aleluya.

Bere eskuma utzaz jarein dau, bere beso deunagaz jarein be. Aintza Aŕeari...

OTOYA. Ziñestunen goguak gurari batez loŕi daruazuzan Goiko Jaun ori: zure eŕijak agindu dozuna maŕe ta abindu dozuna opa dagijala egixu; ludiko aldaketeak gora-bea, gure bijotzak egizko pozoŕa dan tokijan tinko dagokezantzat. Amaibako eguneta zeu ta Goteuna'rekin bakaldun bixi dan zeure seme Josu-Kisto gure Jaun eta Jangoikua dala bide. Olantxe.

IDAZKIJA. Jagoba Beldu deunaren Idazkib irakuŕgaya (1: 7-21).

Ene maŕiok: Adigurirík onenak eta akatz-bko emoi gustijak goŕikuak doguz, aldaketrik eta itxalunerik eztaun argidun Aŕeagaŕikuak. Alantxe nai-ta, egi-itxez soŕtu hi'gauz, bere irazakijen lenengijak gadiŕezntzat. Bai-dakixube, ene anai maŕiok. Etzuteko bizkoŕ bedikez gixon gustijak; iz-egiŕeko, baŕiz, ta aseŕerako, nagi. Gixonaen aseŕia ezpai'dagokijo Jaungoikua'ren zuzenbidiari. Oŕegaŕik, loikeri ta geikerigustijak egotziŕa, eztiŕurik dozuben eta zuen goguak jarein dagikezan itzari mara-mara eutsozube.

ALELUYA. Aleluya, aleluya. Alatzak egin duz Jaunaren eskumeak; Jaunaren eskumek goraldu egin nau. Aleluya.

I. (Iŕo. 6). Kisto, ildakuenetik beŕbixi zanezkero, ezta ilten; aŕezkero, eztau eŕijuak giuko. Aleluya.

GOIZPAŔKIJA. Jon Beldu deunaren Goizpaŕjaŕaikuna (16: 5-14).

Aldi aretan: Josu'k bere zubetariko iñok be, "noa ua?" eztaust iŕandu. Itxok esan dautzubdazalako, baŕiz, iŕunak bete dautzubez bijotzak. Eta esan be, egija desatzubet: ona dozube ni juatia; ni juan ezik, Gotaskaija be eletoŕkikezube-ta; ni juanezkero, baŕiz, bidaliko dautzubet. Eta berau datokenian, gixadija obenaz, ta zuzenaz, ta epayaz zuriŕuko dau. Bai obenaz, nitzaz ziñetsi eztabelako; bai zuzenaz, ni Aŕeagan nualarik, geyago enakuskezubelako; bai epayaz be, ludi ontako nagusija epaŕan alako. Oindiñokaŕen gauzarik asko daukt zubei esateko; oinguan, baña, ezin dailezube uleŕtu. Eta egidun Gogo a datoŕkenan. berak irakatsiko dautzube egi osua; epai'dau bere burubagandik itz-egingo, adiŕu daiken edozerbere esan eta etoŕkixunak iragaŕiko dautzubez-ta. Berak argiŕaldulo nau, nigandikua aŕtu ta iragaŕiko ba-dautzube.

OPAKUNDIA. (6'g. Er.). Goretsi Jaun gua alai-ta-poz, ludiko gustijok; abestu bere ixenari; erdu, ta entzun, Urtzi Jauna guŕtetan dozuben gustijok, eta Jaunak nire goguari egin dautsozan gauza andijak edestuko dautzubedaz, aleluya.

OTOI IXILA. Jauskain guŕgaŕi au aŕerazorik jaungotasun bakaŕaren zatidun bijuŕtu gozuzan Urtzi Jaun ori: zeure egija ezagun dogunezkero, ekandu onakaz jaŕain gaikiŕozala iguzu, aŕen. Amaibako egunetan...

JAUNAŔTZAKUA. (Jon, 16). Egidun Gogo Gotaskarija datoŕkenian, gixadija obenaz, ta zuzenaz, ta epayaz zuriŕuko dau, aleluya, aleluya.

JAUNAŔTZOSTEKUA. Lagundu gagixuz, geure Jaun eta Jaungoiko oŕek: zindoro aŕtu dogun ikuŕtonau dala bide, obenetaz garbiŕu ta galbide orotik jarein gadiŕezantzat. Amaibako...

ERABAKIJAK. "Bidali nindunaganantz noa". Neu be Jaungoikua'k bidali nau ludi onetara; eta, berton gelditu barik, atzera beregana juan biaŕ naz. Gogo-goguan ixango dot beti nire elburu au; eta berau jadesteko sostoŕ yatanetik arduratsu aldenduko naz.

Adimena argitu ta naimena sendotu dagiskedazala eskatuko dautsat Goteunari, ta egunian-egunian eskatu be.

ATAŔIZBAŔNA.

Gipuzkoarrak !!...goazen Aralar'era

Napaŕ-anayak, datoŕen iganderako, Aralaŕ'ko "San Miguel,,'en, batzaŕ nagusi bat eratu digute.

Euzkadi'ren Zaindaria iraindu nai lukete España'ko agintariak, Napaŕa'ko eŕietan Bere irudia sartzea galeraziaz.

Napaŕ anayak, txit samindurik ditugu. Goazen, beraz, gure tamal-aguŕa azaltzera. Goazen gure anaitasuna sendotzera. Goazen, urbiltzen ari zaizkigun aldi estu aretarako Goiko laguntza eskatzera.

"Tolosa'ko Euzko-gastedia,,'k, Tolosa'tik Baraibaŕ'era, "automobilez" egingo da joan-etoŕia. Baraibaŕ'tik San Miguel'era oñez igoaz, antxe besarkatuko gera napaŕ-anayekin.

Guk jaŕiko ditugun "automobilez" joan-etoŕia egin nai dutenak adierazi, aŕen, len-bait-len, Tolosa'ko Abeŕi-etxera (258'gaŕen uŕutizkiñera). Ordaindubeŕa, 5,25 lauŕleko da.

Beste nolabait Aralaŕ'era igotzeko asmoa artzen dezuten gipuzkoŕak, gastigatu zaiguzute noiz eta nola zoazten, mendiko ibilera alkaŕekin egin al-izan dezagun.

Eup, gipuzkoaŕak! Zapatu nagikeran eta datoŕen igandez, Aralŕ era!

Tolosa'ko Euzko-Gastedia.

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoei sendagilea
Garibay 13 bis. 2. - DONOSTI

Aranburu'tar
AZAL ETA TXIZ-BIDIA
Fueros, 5, 3.º DONOSTI

Artua eta babia txikitutzeko makina
Txomin Olano
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE
ALAR-ONENA
Olo afautzagilientzat eta txitak azteko. Utsik ematen ez duten jatekuak: Aragi afain eta azuŕ-irin "Alar Onena".
Especialísimo para gallinas ponedoras y cría de pollitos. Resultados garantizados Harinas de carne, pescado y hueso "Alar Onena"
Maria J. Esnaola
Miracruz, 21 — SAN SEBASTIAN — Teléfono 12.014
¡ALERTA! EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"

Jesús Ostolaza
BERGARA
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA